

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Goicoechea lehendakariordeak Antsoaingo Mercadonaren denda bisitatu du haren irekiera-egunean

Supermerkatuan 70 langilek egiten dute lan, guztiek kontratu finkoekin, eta haiek kontratatzeke orduan Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lagundu du

Viernes, 04 de enero de 2013

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoecheak Mercadonak Antsoainen gaur inauguratu duen denda bisitatu du gaur goizean. Kate horrek Foru Komunitatean irekitzea aurreikusten duen lehenengo supermerkatua da.



Goicoechea lehendakariordea, Antsoaingo Mercadonako lan-talde eta arduradunekin.

Bisitaldian zehar, lehendakariordearekin batera izan dira Nafarroako Mercadonaren Kanpo Harremanetako zuzendari Patricia Cortizas, bai eta marka horren beste arduradun eta Nafarroako enpresa-hornitzaileen ordezkariak ere. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren eta Mercadonaren artean [sinatutako akordioaren arabera](#), enpresak urtero 120 milioi euroko erosketak egiten dizkie Nafarroako hornitzaileei, eta zifra hori igotzeko asmoa dute denda berriak ireki ondoren.

Antsoainen dagoen supermerkatuak 1.600 metro koadroko salmenta-aretoa du eta aparkaleku pribaturako 190 leku. Nafarroako Gobernuak sustatzen duen eraginkortasun energetikoaren politiken bat etorriz, energiaren kontsumoa % 20 arte murrizten duen neurri-sorta bat jasotzen du (beroa errekuiperatzeko instalazioak, argiztapen eraginkorragoa, tenporizadoreak, ate automatikoak eta sabai baxuak tenperatura mantentzeko...).

Mercadonak bere irekieran 2,5 milioi euro inbertitu du eta 70 langile kontratatu ditu, guztiak finkoak. [Nafarroako Enplegu Zerbitzuak](#) laguntza eman du langileak hautatzeko orduan, enplegua bilatzen ari diren langileen datu-basetik bertatik aukeratutakoak. Hautagaien zerrenda egin ondoren, Mercadona arduratu zen azken hautaketaz eta langileei hiru hilabeteko prestakuntza emateaz.



Goicoechea lehendakariordea, Antsoaingo Mercadonaren instalazioetara egindako bisitan.